

KANALAK

Produktu edota negozio bat merkaturatzerakoan kanal ezberdinen beharra egoten da. Kanalek gure enpresa nola komunikatzen den eta merkatura nora iristen den zehazten lagunduko digute. Kanalen artean bi bereizten dira: kanal zuzenak eta zeharkako kanalak. Lehenengoak bitartekaririk gabe lan egiteari dagokio, hau da, saltzaile talde batek beste inorren laguntzarik gabe salmenta egitea. Bigarrenean berriz, bi azpi-kanal aurkitu ditzakegu: elkartutako kanalak, non zure produktua beste enpresa batean saltzen den; eta kanal propioa, hots, denda propioa.

Gure kasuan, kanal zuzena erabiliko dugu merkatuaren parte izateko. Izan ere, bitartekaririk gabe egingo dugu lan eta gu geu izango gara jendearekin egongo garenak. Gure diskotekaren produktua esperientzia izango da, beraz kontsumitzaileak etortzen direnean gu izango gara esperientzia hori eskainiko diegunak. Egia da honek lan handia ekarriko digula, izan ere, diskoteka ezartzea eta kudeatzea ez da lan erraza izango. Baina, gure ustez etekin-marjina handiagoa izango da kanal zuzena erabiltzen badugu, esan bezala gu izango garelako zuzenean jendearekin lanean egongo garenak.

Horrez gain, kanal zuzenarekin jarraituz webgune bat sortuko dugu jendearekin kontaktuan egoteko, eta kontsumitzaileek bertatik gure sarrerak erosteko aukera izango dute. Webgunea ez da konplexua izango, izan ere, jendeak ahalik eta errezen lortzea nahi duena gustatuko litzaiguke; beraz, webgune sinple horretan sarrerak erosteko esteka bat egongo da, non nahi duten sarrera kopurua ezarriko duten. Webgunetik bertan ordaintzeko aukera izango dute eta mobilera edota erabiltzen ari diren gailura iritsiko zaizkie sarrerak zuzenean, sarrerak erosterakoan beren esperientzia ahalik eta errezena izan dadin.

Hori gutxi balitz, webgunearen beste atal batean iradokizunak edota iruzkinak egiteko eremu bat ere egongo da. Horrekin, jendearen iritzia ezagutzea lortu nahi dugu eta berekin harremanetan egotea. Horrela, beste behin gu geu izango gara kontsumitzaileekin zuzenean lanean egongo garenak.

Gauzak horrela, gure diskoteka merkaturatzeko kanal bakar baten beharra ikusten dugu, izan ere, beste kanalen erabilerak jende gehiagoren beharra ekarriko liguke eta ondorioz, diru kantidade handiagoa. Beraz, oraingoz gutxienez gure kabuz lan egiten hasiko gara eta etorkizunean bestelako kanal batzuen beharra ikusiko bagenu ez genuke arazorik izango aurrera eramateko. Beste diskoteka batzuekin elkartzea eta elkartze kanalak sortzea, adibidez.